



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko maiatzaren 21a

67. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroako ikastetxe publiko eta itunduen sareko langileen eta administrazioako eta zerbitzuetako langileen lan-baldintzak lehengoratzea. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuari premiaz egin beharreko zuzenbideak egin ditzan Estatu-ko Gobernuaren aitzinean, Bankiaren eta Caixabanken bat-egitearen eragin negatiboa minimizatzeko. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (6. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez aitortzen baita Espainiak lotura historiko eta afektiboa daukala Sahara Mendebaldeko gatazka politikoan, eta Espainiako Gobernuari eskatzen baita nazioarteko zuzenbidearen eta Nazio Batuen Erakundearen ebazpenen arabera konponbide politikoa aldeztu eta erraztu dezan Nazio Batuen Erakundearen, Europar Batasunean eta nazioarteko gainontzeko erakundeetan. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, tresneria medikoaren erosketa dela-eta Nafarroako Osasun Zerbitzuan detektatutako ustezko delituari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (10. or.).

—Galdera, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” 5 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (11. or.).

—Galdera, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” 5 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren laguntza teknikoari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (12. or.).

- Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” 11 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (12. or.).
- Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” 11 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren laguntza teknikoari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (13. or.).
- Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” 11 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (14. or.).
- Galdera, emakume ezkongabeek in vitro ugalketarako tratamendua eskuratzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Osasun Aholkuaren Zerbitzuaren 948290290 telefono zenbakian eta 948370120 telefono zenbakian COVID-19aren aurkako txertoa dela-eta artatu gabeko deiei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuak COVID-19arekiko sentsibilizazio sare bat abian jartzeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” 15 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (17. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” 15 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (18. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” 15 DDSS, REACT EU Navarra proiektua dela-eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan aritzeko sistemari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (18. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” 15 DDSS, REACT EU Navarra proiektua dela-eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua eta enpresa-sektoreak lankidetzan aritzeko sistemari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (19. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” 15 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren laguntza teknikoari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (20. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” 19 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (20. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” 19 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (21. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” 19 DDSS, REACT EU Navarra proiektua dela-eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Nafarroako Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Agentzia eta sektoreko enpresak lankidetzan aritzeko sistemari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (22. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” 19 DDSS, REACT EU Navarra proiektua dela-eta gizarte zerbitzuen mankomunitateekin eta udalekin lankidetzan aritzeari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (22. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” 19 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren laguntza teknikoari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (23. or.).
- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (24. or.).
- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (24. or.).

- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren programazio berriari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (25. or.).
- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektua dela-eta udalekin eta mankomunitateekin egindako akordioari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (26. or.).
- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren laguntza teknikoari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (26. or.).
- Galdera, Caparrosoko udalerrian dagoen esnetarako behi-azienden instalaziorako Valle de Odieta SCLri ingurumen-baimen integratua emateari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (27. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen 2020ko ekitaldiko kontuak. (28. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroako ikastetxe publiko eta itunduen sareko langileen eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen lan-baldintzak lehengoratzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Navarra Suma talde parlamentarioak talde parlamentarioak aurkeztu du foru lege proposamena, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroako ikastetxe publiko eta itunduen sareko langileen eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen lan-baldintzak lehengoratzea.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroako ikastetxe publiko eta itunduen sareko langileen eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen lan-baldintzak lehengoratzea (10-21/PRO-00009).

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru lege proposamena, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroako ikastetxe publiko eta itunduen sareko langileen eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen lan-baldintzak lehengoratzea**HITZAURREA**

Hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premia buruzko

apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege-dekretuaren bidez, 2008ko krisi finantzario eta ekonomikoaren esparruaren barruan, Espainiako Gobernuak ezarri zuen Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako ikasketak ematen dituzten irakasleen lanaldiaren irakastordua nahitaez igotzea, gutxienez ere 25 ordura haur eta lehen hezkuntzan eta 20ra gainontzeko irakaskuntzetan, ikastetxe publikoetan eta funts publikoekin ordaintzen diren ikastetxe pribatuetan.

Oinarriko araudi horrek irakasle bakoitzeko orduak igotzera behartu zituen administrazio publikoak; ikastetxe itunduen sarearen kasuan, 100 pertsona baino gehiago kaleratzea zekarren horrek, eta sare publikoan, berriz, lanpostu berrien sorreran eragin negatiboa izatea eta irakasleen lan-baldintzak okertzea.

Gauzak horrela, Nafarroako Gobernuak, ikastetxe itunduen sareko enpresaburuak eta langileen ordezkariak akordio solidario batera heldu ziren, Espainia osoan ereduagarria zena, irakasleen soldata % 2,5 eta administrazioko eta zerbitzuetako langileena % 2 jaisteko, inor ere ez zedin kalean gera.

Akordio haren ondorioz, Nafarroako Gobernuak eta sektoreko enpresaburuak Irakaskuntza Itunduaren Oinarrien Akordioa sinatu zuten 2012ko ekainaren 20an; horren arabera, neurri hori lehengoratu egin behar zen errege lege-dekretu hori indargabetzen zenean, eta helburuen artean jasotzen zuen etorkizuneko negoziazioetan bilatuko zela % 95ekoa izatea sare itunduko langileen eta sare publikoko langileen arteko lansari-analogia.

Geroago, 2017ko irailean, Irakaskuntza Itunduak Akordioa sinatu zuten Nafarroako Gobernuak, Irakaskuntza Itunduko enpresaburuak eta LAB, SEPNA eta UGT sindikatuek. Hasiera batean 2019ko abuztura arte indarrean egon behar zuen eta 2020ko abuztura arte luzatu zen akordio

horretako 3. neurriak honako hau ezartzen zuen: “Hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premiazko neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege-dekretuaren 3. artikulua gainditzeko modurik ez dagoen bitartean, mantendu egingen dira 3. artikuluko horren aplikazio-neurriak, 2012ko ekainaren 28ko Akordioaren lehendabiziko eta bigarren apartatuek eta Nafarroako Gobernuaren 2012ko uztailaren 4ko Akordioa-ekin bat”.

Aukera hori orain egon badago; izan ere, Unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren eremuan irakaskuntzan eta hezkuntzan aritzeko baldintzak hobetzeko martxoaren 7ko 4/2019 Legeak indargabetu egin zituen 14/2012 Errege Lege-dekretuaren 2., 3. eta 4. artikulua, eta horren aurreko egoerara itzultzea ahalbidetu zuen.

Hori dela-eta, 2012ko Errege lege-dekretua aplikatzearen ondorioz soldata jaitzi zitzaienez sare itunduko irakasleei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei (%1,25 eta %1, hurrenez hurren), soldata-jaitziera horren erdia lehengoratu zitzaion 2020ko ekaineko nominan, eta horrek de facto esan nahi zuen beste erdia hurrengo ekitaldian ordaintzeko konpromisoa.

Halere, 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan ez da jaso konpromiso horri aurre egiteko behar den diru-kopurua; ez du ematen, beraz, Nafarroako Gobernuak sare itunduarekiko akordioa betetzeko borondaterik duenik.

Hezkuntza Departamentuak ere ez du borondaterik erakutsi 86/2018 Foru Aginduan jasotzen den Nafarroako Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Ituna (2018-2022) betetzeko, 2021-2022 ikasturterako 55 urtetik gorako irakasleen ordutegia murrizteari dagokionez, itun horren 4. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Bi neurri horiek foru lege honetan zertzen dira, eta ahal den egonkortasun handiena lortzen lagundu behar dute irakasleen lan-baldintzei dagokienez, kalitate-maila egoki bat bermatuta. Bi baldintza horiek –egonkortasuna eta kalitatea– funtsezkoak dira gure hezkuntza-sistemaren bikaintasunean eta ekitatean aurrerabidea egiteko.

Hortaz, Nafarroako irakasleendako baldintzak –bai irakaskuntza publikokoak nahiz itundukoak– arau bidez ezarri beharra dago, indarrean dauden

akordioak oinarri, helburu horiek lortzeko eta bermatzeko Nafarroako ezein irakasle kalteturik ez ateratzea jada aitorturik dauzkan eskubideetan.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da ikastetxe publikoen eta itunduen sareetako irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen lan-baldintzak lehengoratzeko, Irakaskuntza Itundurako 2012ko eta 2017ko akordioetan eta Nafarroako Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Itunean (2018-2022) ezarritakoarekin bat, irakaskuntza itunduko irakasleen erosahalmena lehengoratzeari eta irakaskuntza publikoko 55 urtetik gorako irakasleen ordutegia murrizteari dagokienez.

2. artikulua. Sare itunduko irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen soldata lehengoratzeko

1. Hezkuntza Departamentuak soldata % 1,25 igotzea bermatuko die 2021-2022 ikasturterako sare itunduko irakasleei. Igoera atzeraeraginez ordainduko zaie, beranduenez 2022ko urtarrilaren 1ean.

2. Hezkuntza Departamentuak soldata % 1 igotzea bermatuko die 2021-2022 ikasturterako sare itunduko administrazio eta zerbitzuetako langileei. Igoera atzeraeraginez ordainduko zaie, beranduenez 2022ko urtarrilaren 1ean.

3. artikulua. Sare publikoko 55 urtetik gorako irakasleen ordutegia murriztea.

Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Ituna (2018-2022) betetzen jarraituko du; hartara, bermatuko du 2021-2022 ikasturterako 55 urtetik gorako irakasleei eskola-ordu bat (Haur Hezkuntzan, 2) murriztea, irakaskuntza zuzenaren ordezkari pertsonala eginda, soldata murriztu gabe.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea eta atzeraeraginez aplikatzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko zuzemenak egin ditzan Estatuko Gobernuaren aitzinean, Bankiaren eta Caixabanken bat-egitearen eragin negatiboa minimizatzeko.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko zuzemenak egin ditzan Estatuko Gobernuaren aitzinean, Bankiaren eta Caixabanken bat-egitearen eragin negatiboa minimizatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

2008ko irailaren 15ean Lehman Brothers kolapsatu izanak 1929ko crackaz geroztiko krisi ekonomikorik larrienetako bat eragin zuen.

Krisia banketxe batean hasi zen, higiezinaren sektorean izan zuen segida jarraian –zorioneko burbuila– eta, azkenik, sektore ekonomiko guztiak harrapatu zituen, halako moduan non ongizatearen estatuan eragina izan zuten murrizketa handiekiko atzeraldi sozial larri bat eragin baitzuen.

FUNCASen datuen arabera, aurrezki pribatuak inbertsio pribatuaren % 51,7 egiten zuen. 2008an,

portzentaje hori % 62ra igo zen, aurrezki pribatuaren tasa handiagoa eta inbertsio pribatuaren tasa txikiagoa izatearen ondorioz.

Aurrezki kuxkak aitzindariak ziren Estatuan kredituak ematen eta besteren baliabideak atzitzen zituzten banketxeen jardueran, eta banketxe handiek ezin zuten halakorik onartu, ikusten baitzuten aurrezki kuxkak mehatxu bat zirela beraiena ez beste inorena zela uste zuten sektorean.

Gauzak horrela, ondoko urteetan, produktibitate eta lehiakortasun handiagoa lortze aldera sektorea egituratzearen aitzakian, kasuko lege-aldaketak egin ziren, aurrezki kuxkak banketxe bihurtzera derrigortzeko. Eta hala heldu ziren bat-egiteak eta xurgapenak, gaur bizi dugun egoerara heldu arte, non entitate gutxi batzuk baino ez dauden, denak ala denak banketxeak, kreditu-kooperatibak izan ezik.

Horrek bulego ugari ixtea eragin du, eta gero eta herri gehiago geratu dira inolako zerbitzurik gabe, are kutzazainik gabe ere. Eta halaber eragin du edozerengatiko komisioak areagotzea, jendeari kasu egiteko ordutegiak murriztea –bulegoetan, gainera, langile gutxiago egonda–, autozerbitzua bultzatuta, kontuan izan gabe gure gizartean dagoen eten digital handia.

Prozesu horren guztiaren ondorioetako bat izan zen, gure erkidegoan ondo asko dakigun moduan, Nafarroako Kutxak, Casa Solekin, Caja Canariasekin eta Caja Burgosekin batera, Banca Cívica sortu izana, zeina Caixabankek xurgatu baitzuen geroago.

Nafarroako gizartearen erreferentziazko entitatea desagertu zen hartara, eta horrek ondorio sozial eta ekonomiko nabarmenak izan zituen.

Altxor publikoak 60.000 milioi eurotik gora jarri zituen horretarako gutzirako, eta 4.000 baino ez dira berreskuratu.

Iragan irailean, bat-egitea iragarri zuten Caixa-bankek eta Bankiak –erreskatatutako entitateetako bat–. Prozesu hori orain dela gutxi gauzatu da, eta berekin ekarri du 8.291 langile –horietako 66, Nafarroan– ukituko dituen enplegu erregulazioko espediente bat.

Espainiako finantza-sektorean inoiz egin den enplegu erregulazioko espedienterik handienetako bat da, 1.534 bulego itxiko baitira.

Sindikatuak aurkeztu zaien berregituratze-planak 66 langile ukituko lituzke Nafarroan, baina hemendik gutxira askoz ere lanpostu gehiago gal litezkeenez, entitateko langileak oso kezkatuta daude.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko zuzemenak egin ditzan Estatuko Gobernuaren aitzinean –harena baita Caixabank berriaren % 16,11–, neurri zehatzak hartzeko Bankiaren eta Caixabanken bat-egiteak enpleguan, bulego-kopuruan eta Caixabanken lortuko dituen kreditu fiskalek Foru Ogasunean eraginen duten diru-bilketa murriztagoan duen eragin negatiboa minimizatze aldera.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin, eta aitortu egiten baititu sexu-orientazioaren nahiz sexu- edo genero-identitatearen arloan pertsona orori dagozkion eskubideak.

2. Nafarroako Parlamentuak aldarri egiten du giza eskubideen errespetuari eta pertsona-izaerari beste edozein zirkunstantziaren gainetik lehentasuna ematearen alde.

3. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten ditu edozein diskriminazio eta pertsonen askatasun sexualaren aurkako edozein eraso, non ere gertatzen den.

4. Nafarroako Parlamentuak berriro ere defendatzen du hezkidetzak daukan balioa berdintasunean, sexu-askatasunean eta genero-ikusean hezteko, eta giltzarritzat jotzen du LGTBI-fobiaren aurkako borrokarako eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako”. (10-21/DEC-00027).

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez aitortzen baita Espainiak lotura historiko eta afektiboa daukala Sahara Mendebaldeko gatazka politikoan, eta Espainiako Gobernuari eskatzen baitzaio nazioarteko zuzenbidearen eta Nazio Batuen Erakundearen ebazpenen araberrako konponbide politikoa aldeztu eta erraztu dezan Nazio Batuen Erakunde, Europar Batasunean eta nazioarteko gainontzeko erakundeetan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Aitortzen dugu Espainiak lotura historiko eta afektiboa daukala Mendebaldeko Saharako gatazka politikoan; horrenbestez, Espainiako Gobernuari eskatzen diogu Nazio Batuen Erakunde, Europar Batasunean eta gainerako nazioarteko erakundeetan nazioarteko zuzenbidearen eta NBERen ebazpenen araberrako konponbide politiko bat ekinbidez aldeztu eta erraztu dezan, eztabaida eta liskar orotatik urrun egon behar duen estatu-politika baten osagai gisa, horiek ez baitute ezertan laguntzen behar den konponbide politikari begira. Erreferentziazkotzat jotzen segitzen dugu Auzitegi Nazionalaren harako auto hura, Espainia “de iure administrazio-potentzia” jotzen zuena Mendebaldeko Sahararekiko.

2. Kontuan hartzen ditugu Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak jaulkitako epaiak, Europar Batasunaren eta Marokoren arteko elkartzeko akordioan oinarrituak izanik Mendebaldeko Saharari erasan ahalko lioketen akordioei buruzkoak.

3. Oso garrantzitsuak izan dira parlamentuen taldeartekoen iraganeko konferentzietan iritsitako akordioak, eta berresten ditugu onetsiriko ondoz ondo adierazpenak, batik bat 2020an Santanderren onetsirikoa, zeinetan, besteak beste, aldarrikapen argi eta garbia egiten baitzen, Nazio Batuen ebazpenetan eta nazioarteko zuzenbidearekiko errespeturik handienez oinarrituta, Saharako herriak erreferendum bidez bere autodeterminaziorako daukan eskubide zilegiaren alde, duela zenbait hamarkadatik dirauen deskolonizazio-prozesuaren azken urrats gisa.

4. Mendebaldeko Saharak bizi duen egoerarekiko kezka adierazten dugu, zeinak arriskuan jartzen baitu 1991ko Su-eten Akordioa, Nazio Batuek babestua eta Marokok eta Fronte Polisarioak izenpetua.

5. Alderdiei eskatzen diegu ez urduritzeko eta ez dezaten ezein bortxazko, probokaziozko edo indarrezko ekintzarik egin, Mendebaldeko Sahara-

ko prozesu politikoa bultzatzen segitzearren harturiko konpromisoei atxikitzeko borondate osoari euts diezaioten, eta konpromisoa har dezaten elkarrizketa- eta negoziazio-prozesuarekin aurrera jarraitzeko, halatan MINURSO-Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako Nazio Batuen Misiorekin su-etena dela-eta hitzarturiko akordio militarrek osoki errespetaturik, kalterik ez egitearren negoziazioei edo Mendebaldeko Saharako eta erregioko egoera are gehiago kolokan ez jartzearen.

6. Eskatzen dugu errespetu daitezela 1991z geroztik indardun diren Su-eten akordioak, eta berresten dugu guztiz aldeztu ditugula MINURSO-Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako Nazio Batuen Misioren ahaleginak, hark bere eginkizuna osoki eta erabakitazunez bete dezan. Halaber, adierazten dugu babestu egiten dugula Nazio Batuen Erakunde Segurtasun Kontseiluaren erabakia, haren agintaldia 2021eko urriaren 31ra arte luzatzekoa, eta Idazkari Nagusiari eskatzen diogu lehenbailehen izenda dezan bere Mendebaldeko Saharako ordezkari pertsonala, behar bezala bete dezan bere egitekoa.

7. Eskatzen dugu jarraipena eman dakiela elkarrizketa eta negoziazio iraunkor, sinesgarri eta eraikitzaileei, gidari direla bai Nazio Batuak bai Mendebaldeko Saharako Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren ordezkari pertsonal berri bat, ibilbide-orri eraginkor batekin, helburu zehatzekin eta epe argiekin, erabat sinetsita gaudela fede onez eta modu eraikitzailean gauzaturiko elkarrizketaren, negoziazioaren eta akordioaren bidez soilik, nazioarteko zuzenbideari eta NBERen ebazpenei jarraikiz, jorra daitekeela erregioko bake, elkarbizitza, konfiantza, segurtasun eta aurrerapen ekonomiko eta sozialerako bidea.

8. Aldeaniztasunezko ikuspegi batetik adierazten dugu aldeztu egiten ditugula Nazio Batuen Erakundeak eta haien Idazkari Nagusiak Mendebaldeko Saharako gatazka politikoarentzako konponbide bat aurkitzeko asmoz eginiko ahaleginak, oso nabarmenki areagotu beharrekoak eta alder-

dien nahiz inguruetakoa herrialdeen laguntza jaso beharrekoak.

9. Azpimarratzen dugu ezinbestekoa dela konponbide politiko justua eta iraunkorra, Nazio Batuen ebazpenen arabera eta Nazio Batuen Gutunaren printzipio eta asmoen esparrukoa. Alderdi guztien arduraren aldeko deia egiten dugu, konponbidea ikuspegi aldean eta eraikitzaile batetik bilatzeko.

10. Adierazten dugu erabat sinetsita gaudela ezen adierazitako printzipioen arabera konponbide politikoa oreka- eta egonkortasun-faktorea dela erregioan; hil ala bizikoa da hori Mediterraneoarentzat eta Europarentzat berarentzat. Ezinbesteko deritzogu zona horretako harremanak, etorkizunari begira, elkarren errespetu eta errekonozimenduan eta aldebiko nahiz alde anitzeko lankidetzan oinarrituta egoteari, eta nabarmentzekoa da ezinbestekoa dela liskararen eta lehiaren logikatik guztiz alderantzizko beste batera, lankidetzan eta laguntzan oinarrituta, igarotzea, erregio osoari onura ekarriko diona bakearen, giza eskubideen, egonkortasunaren, segurtasunaren eta aurrerabide ekonomiko eta sozialaren alorretan.

11. Ohartarazten dugu Mendebaldeko Sahararen aferari soluzio politikoa ematea oinarritzeko dela Magrebeko herrialdeen arteko lankidetzaren erregionalerako eta erregioaren egonkortasun, segurtasun eta oparotasunerako, nahitaezkoa baita Mediterraneoarentzat, Espainiarentzat eta, horrenbestez, Europaren osotasunarentzat.

12. Espainiako Estatuko erakunde publikoak premiatzen ditugu eutsi ez ezik areagotu ere egin dezaten elkartasuneko laguntza humanitarioa, bai Tindufeko kanpalekuan errefuxiatu bizi izan diren saharar biztanleentzako ere. Nazioarteko eta Europako erakundeek dei egiten diegu ahal den heinean gehitu dezaten beharrezkoa den laguntza humanitarioa, halatan elikagai-, ur-, bizi-leku- eta medikuntza-beharrizan oinarritzko erantzuten laguntzeko, saharar herriaren bizi-baldintzak hobetzeko eta haien giza eskubideen alde.

13. Gure eskerrik onena eta errekonozimendua adierazten diegu saharar herriarekiko zeregin humanitario eta solidaritatezkoan diharduten administrazio eta erakunde sozial guztiei, eta eskatzen diegu ematen duten laguntzari euts die-

zaizoten eta ahal den heinean laguntza hori areagotu dezaten, giza eskubideekin eta solidaritatearekin gizarte zibilak eta administrazioek harturiko konpromisoaren agerpen goraiagarria den aldetik.

14. Eskerrak ematen dizkiegu egunero-egunero saharar herriarekiko adiskidetasunean diharduten elkarte, federazio eta kolektibo solidario eta sozialei, eta halaber aitortzen dugu haurrei harrera egiteko "Oporrak bakean" programaren funtsezko garrantzia, saharar eta espainiar familien arteko maitasun- eta hurbiltasun-harremanen eta solidaritatearen erakusgarri behinena izaki.

15. Premiatzen dugu Saharar Emakumeen Batasun Nazionalarekiko gure lankidetzaren politikoa indartzera, haiek errefuxiatuen kanpalekuan betetzen duten zeregin oinarritzko eta erabakigarria dela-eta. Eta, aldi berean, dei egiten dugu haien ikusezintasun-egoerarengatik, giza eskubideen urraketaren biktima baitira. Aipamen berezia egin beharra dago lurralde okupatuetan desagerturiko emakumei buruz.

16. Hedabideek oinarritzko zeregina betetzen dute; horregatik, eskatzen dugu Mendebaldeko Saharako gatazkari emandako tratamendua Espainiako gizarteak ematen dion garrantzi eta munta berekoa izan dadila.

17. Gure parlamentuen eta Saharako Parlamentuaren arteko harreman instituzional eta politikoak errazteko konpromisoa hartzen dugu. Horregatik dauka gure sostengua Aljerreko azken Konferentzian saharar herriaren alde aurkeztu zen parlamentari-sareak.

18. Espainiako Gobernuari eskatzen diogu lan egin dezala, bai Europaren politikatik bai bere aldebiko harremanetan, hegoaldeko auzotartasunari bultzada emateko, Bartzelonako Prozesua hasi zenetik hogeita bost urte igaro direnean. Horretarako, apustu egin behar du Mediterraneo bi ertzeko herritarrentzako aukera berriak sortzearen alde. Halaber dei egiten diogu aitzindari izan dadin lankidetzan eta elkarriketan, horietan eskatu direnez gero berriki Batzordeak eta Goi Ordezkariak egin duten baterako komunikazioan, hegoaldeko auzo-herrialdeekiko elkarte berrituari buruzkoan". (10-21/DEC-00028).

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, tresneria medikoaren erosketa dela-eta Nafarroako Osasun Zerbitzuan detektatutako ustezko delituari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIAIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak aurkezturiko galdera, tresneria medikoaren erosketa dela-eta Nafarroako Osasun Zerbitzuan detektatutako ustezko delituari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniain jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Arartekoak Foru Araubideko Batzordean adierazi zuenez, keza bat igorri dio Fiskaltzari, eta horrek, era berean, epaitegiari helarazi dio, iker dadin tresneria medikoa enpresaren batekin lankidetzan erosi ote den, komisioak ordainduta.

• Ba al dakizu epaitegiak ikerketarik ireki ote duen tresneria medikoaren erosketa dela-eta Nafarroako Osasun Zerbitzuan detektatutako ustezko delitu batengatik?

• Nola jakin zenuten?

• Noiztik dakizue?

• Osasunbidea bera edo Nafarroako Gobernua izan al zen gertakarien berri fiskaltzari eman ziona?

• Osasunbidea edo Nafarroako Gobernua al da salatzailea?

• Hala bada, noiz pertsonatu da prozeduran?

• Osasunbideko zenbait arduradunek gertakarien berri izatekotan, harremanetan jarri al dira salaketa jarri duen pertsonarekin edo pertsonekin?

• Hala bada, Osasun Departamentuko edo Osasunbideko zuzendaritzako zein kidek dute gertakarien berri? Noiztik? Nola izan dute horren berri (hitzez, modu presentzialean, postaz, jakinarazpen bidez)?

• Ba al dakizue salatzaileen artean Osasunbideko funtzionario fakultatiborik ba ote dagoen?

• Ba al dakizu praktika horiek salatu edo jakinarazi dituen funtzionarioen batek helarazi ote duen salaketa beste organismo edo erakunde batzuetara?

• Osasunbideak edo Osasun Departamentuak ireki al du barneko ikerketa arauturik gertaturikoa argitzeko eta erator litezkeen erantzukizunak zehazteko?

• Hala baldin bada, noiz?

• Ba al dakizue praktika horiek salatu edo horien berri eman duen funtzionario fakultatiboren batek eraldatuta ikusi ote duen bere lan-jarduera (beste lanpostu bat esleitzea, programazioa, ordu-tegi aldaketa, eta abar) bere nagusiei aipatu gertakari eta praktiken berri eman ondoren?

• Osasunbideko zuzendaritzako kideek galderaren xedea den gaiari buruz duten ezagutzaren edo informazioaren arabera (Nafarroako Osasun Zerbitzuaren balizko delitu-ikerketa), gertakariak ba al dute zerikusirik materiala enpresa farmazeu-

tiko edo ekoizle edo hornitzaile jakin batzuei erosi izanarekin?

Zer erabaki hartu dituzte Osasunbideko arduradunek edo Nafarroako Gobernuak gertatutakoaren berri izan ondoren?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin

Galdera, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” 5 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” 5 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” 5 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan 2.000.000 euroko aurrekontua ezartzen da 2021erako. Zer aurrekontu-partidatan oinarrituta eta zer diru-kopururik garatuko da jarduketa hori? Proiektu horretara bideratutako diru-zuzkidura aurreikusita al zegoen departamentuaren hasierako aurrekontuan, ala aurrekontuan jaso beharreko kreditu handiagoa al da?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” 5 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren laguntza teknikoari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” 5 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren laguntza teknikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” 5 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan 360.000 euroko aurrekontua ezartzen da laguntza teknikorako.

Zertan datza laguntza tekniko hori?

Noiz lizitatuko da? Zer baldintzatan? Zer prozedurarekin? Zer aurrekontu-partidatan oinarrituta?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” 11 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak

ezartzea” 11 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” 11 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan 100.000 euroko aurrekontua ezartzen da 2021erako. Zer aurrekontu-partidatan oinarrituta eta zer diru-kopururekin garatuko da jarduketa hori? Proiektu horretara bideratutako diru-zuzkidura aurreikusita al zegoen departamentuaren hasierako aurrekontuan, ala aurrekontuan jaso beharreko kreditu handiagoa al da?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” 11 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren laguntza teknikoari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” 11 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren laguntza teknikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” 11 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan 40.000 euroko aurrekontua ezartzen da laguntza teknikorako.

Zertan datza laguntza tekniko hori?

Noizko aurreikusten da lizitazioa? Zer baldintzatan? Zer prozedurarekin? Zer aurrekontu-partidatan oinarrituta?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” 11 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” 11 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” 11 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen denez, kudeaketa “enpresa publikoari enkargua” egiteko modalitatearen bidez egiten da. Zergatik aukeratu da kudeaketa-modalitate hori? Zehazki zer enpresa publikoari emanen zaio enkargua? Zer irizpideren arabera?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, emakume ezkongabeek *in vitro* ugalketarako tratamendua eskuratzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera, emakume ezkongabeek *in vitro* ugalketarako tratamendua eskuratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 14.2 artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak dakienez, beharrezkoa da 660E/2017 Foru Agindua aldatzea, araudia egokitzeko eta emakume ezkongabeek *in vitro* ugalketaren prestazioa eskuratu ahal izateko baldintzak ezartzeko. Gaur egun, foru agindu horrek urratzen du emakume askoren eskubidea, bikotekidea duten beste emakume batzuek jasotzen dituzten ugalketa-tratamendu berberak jasotzekoa; izan ere, prestazioen artean ez da jasotzen lagundutako *in vitro* ugalketa emakume ezkongabeentzat.

Halatan:

Giza ugalketa lagunduko teknikei buruzko maiatzaren 26ko 14/2006 Legearen 6.1. artikuluan ezartzen da jarduteko gaitasun osoa daukaten 18 urtez gorako emakume guztiek baliatu ahalko dituztela lege horretan arauturiko teknikak, horretarako baimen aske, kontziente eta espresua ematen badu idatziz. Emakumeak lege horretan arauturiko teknikak baliatu ahalko ditu, edozein direla ere bere egoera zibila eta sexu-orientazioa.

Osasun Ministerioak aldatu egin du irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez doako giza ugalketa lagundua hedatzen da emakume lesbiana ezkongabeentzat.

Autonomia-erkidego bakoitzak eskumena du bere zerbitzu-zorroari dagokionez. Hala, Nafarroan:

103/2016 Foru Dekretuan zehazten da tratamenduak eskuratu ahalko direla sexu-lehenespen, sexu-orientazio edo errenta-mailagatik diskriminaziorik gabe. Lege horretan jaso nahi den berdintasun-araubidea ez da egiazkoa.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legearen 48.5. artikuluan ezartzen denez, neurriak hartuko dira familia gurasobakarretako buru diren emakumeentzat, eta 51.9.ean esaten da Nafarroako Gobernuak bermatuko duela emakumeek giza ugalketa lagunduko teknikak baliatzeko duten eskubide osoa, egoal-

ra zibila, sexu-orientazioa, jatorria edo nortasuna aintzat hartu gabe.

660E/2017 Foru Aginduaren bidez urratu egiten da emakumeen eskubidea, bikotekidea duten beste emakume batzuek jasotzen dituzten ugalketa-tratamendu berberak jasotzekoa, eta aurreko legeekiko kontraesanean dago.

Osasuneko kontseilariaren 660E/2017 Foru Agindua ez dator bat Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearekin, prestazioen artean ez baita jasotzen *in vitro* ugalketa:

«3. artikulua. Prestazioak.

Nafarroako zerbitzu-zorro osagarrian honako prestazio hauek sartzen dira:

a) Giza ernalketa lagunduko tratamenduak sexu bereko bikotekidearekin bizi diren emakumeentzat, bikote heterosexualen baldintza beretan, baldin eta betetzen badira aplikatu beharreko teknikaren irizpide orokorrak eta berariazkoak, urriaren 31ko SSI/2065/2014 Aginduan ezarritakoak, indikazio terapeutiko onarturik frogatu behar izan gabe.

b) Intseminazio artifiziala, emaile baten gametoa baliatuz, gizonezko bikotekiderik ez duten emakumeentzat, baldin eta betetzen badira aplikatu beharreko teknikaren irizpide orokorrak eta berariazkoak, urriaren 31ko SSI/2065/2014 Aginduan ezarritakoak, indikazio terapeutiko onarturik frogatu behar izan gabe.

c) Ereizioaren disfuntzio iatrogenikoaren tratamendu farmakologikoa”.

Baina beste autonomia-erkidego batzuetako legeetan jasota dago, Osasun Ministerioaren 1030/2006 Errege Dekretuan ezarritakoari erantzunez.

Badakigu kontu honi buruzko herritarren erreklamazioak egon direla 2017an aipatu legea indarrean sartu zenetik, bai eta Arartekoaren gomendio bat ere, 2018an hain zuzen.

Noiz eguneratuko du Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak 660E/2017 Foru Agindua, bermatzeko emakume ezkongabeek Osasunbideak eskaintzen duen *in vitro* ugalketarako tratamendua baliatzeko aukera dutela?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 7an.

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Osasun Aholkuaren Zerbitzuaren 948290290 telefono zenbakian eta 948370120 telefono zenbakian COVID-19aren aurkako txertoa dela-eta artatu gabeko deiei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Osasun Aholkuaren Zerbitzuaren 948290290 telefono zenbakian eta 948370120 telefono zenbakian COVID-19aren aurkako txertoa dela-eta artatu gabeko deiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

